

BILBO. Jon Azua Industria sailburu ohiaren enpreseak egin dau horren ganeko txostena



JON HERNÁEZ / ARGAKI PRESS

Naturcorp enpresearen eskaintza onartuta be, Bilbogaz izena gordeko leuke zerbitzu barriak.

Udal agintariak aztertzen dagoz Bilbogaz zelan saldu

Naturcorp enpreseak egin deutsan eskaintzea onartzeko prest dago

Iñigo Bilbao

Udala aztertzen dago zelan egin Bilbogaz enpresea Naturcorp konpainiaren barruan egokitze-ko. Izan be, bagilaren 27an, bere garaian Gas de Euskadi zanak gutuna igorri eutsanetik, udal agintariak azkartu egin dabe oraindino publikoa dan konpainia pribatu egiteko prozesua. Idatzi horretan, eskaintza zuzena egin eutsen Udalari: Bilbogaz enpresan dituan akzino guztiak (%50) erosi gura deutsiez eta trukean, Naturcorp enpresa ba-

rriaren %4,3 hartzeko aukerea emongo deutsiez.

Udalak hiru aukera aztertu ditu

Bizkaia-k jakin dauenez, eskaintza horren aurrean Udal Gobernuak hiru aukera aztertu ditue: edo gauzak dagozan lez iztea, Bilbogaz Udalak eta Energiaren Euskal Erandundeak erdibana kudeatuz; edo bere akzino guztiak Naturcorp enpreseari saltzea, beste barik; edo, jasotako eskaintzea onartu eta enpresa barriko kide izatea.

Udalak horren ganeko azter-

keta egiteko agindu eutsan Bearing Point Jon Azua Industria sailburu ohiak zuzentzen dauen enpreseari. Txostenak gas merkaturak aztertu ostean balioztatu egiten dau horren barruan pribatizazio prozesuak izango dauen eragina. Horren arabera, ondorio zehatza ataritzen dau Azuaren enpreseak: Udalarentzat onuragarria izango litzateke Naturcorp enpresan sartzea. Hori bai, integrazinoa eskaini baino baldintzat hobeagotan egin beharko dala nabarmendu dabe txostenaren egileek.

Bilboko Udalari egin deutsien eskaintza (%4,3) egin leitekean eskasena izan da. Txostenak dinoanez, Naturcorp enpreseak Donostiako Udalagaz berbatu dauen akordioa Bilbora egokitu ezker, partehartzea %4,8koa izango litzateke. Zentzu horretan, txostenak argi izten dau Bilbogaz enpreseak bere burua handitzeko gaitasun handia daukala oraindino.

Horren guztiorren barri Ibon Areso alkateordeak emon deutse oposizionoko taldeei. Zinegotzi jeltzaleak aurreratu deutsinez, Udalak Bilbogaz Naturcorp enpresearen barruan sartzea onartu ezker zenbait baldintza ipiniko lituke: Bilbon zerbitzua publikoa eskaintzen jarraitzea, lehenengo eta behin, eta horren ostean Bilbogaz izena gordetzea.

Beharginen egoerea

Beharginei jagokenez, Udalak langile guztiak euren postuan jarraitzeko eskatuko leuke, bai eta Naturcorp enpresako ugazabek beharginok gaur egun dituen lan baldintzak gordeko dituela bermatzeko be.

Amaitzeko, udal agintariak leku bat eskatuko leukie enpresa barriaren Administrazio Kontseiluan. Horrekin dira, azken baten, Bearing Point konpainiak egin dauen azterketearen ondorioetan Udalari egiten jakozan gomendioak.

Bizkaia-k jakin dauenez, Udalak abenduaren 15a baino arinago hartu beharko dau erabagia. Udal Gobernuak bat egiten dau prozesu horregaz. Izan be, Ibon Areso Urigintza Saileko zinegotziak oposizionoko taldeei aitortu deutsanez, «hobe da gauzak horrela egitea, ez daigun gertatu hileta zerbitzuekin gertatu jakuna».

UDALA. Ezker abertzaleak mozinoa aurkeztuko dau Administrazio Kontseilua batu daiela eskatzeko

Udalbatzarrerak jo behar izan dabe Cimubisako zuzendariak ez deutsielako kasurik egiten

I.B.

Sozialista Abertzaleak taldeak udalbatzarrerak joko dau eskatzeko Cimubisa udal-enpresearen zuzendari Administrazio Batzordea batu daiela. Arantza Urkaregi eta Marta Perez zinegotziek salatu dabenez, mozinoa aurkeztera behartuta egon dira, Iñaki Etxebarria Cimubisako lehendakariak ez deutsielako kasurik egin batzarra deitatzeko eskatu deutsinean.

Cimubisaren ganeko kritika

eta salaeta asko kaleratu da aspaldion komunikabideetan. Izan be, udalbatzarrak Enplegua sortzeko Plana onartu ebanetik, bai sindikatuak bai Urkaregi eta Perez ordezkatzen daben taldeak, behin baino gehiagotan txarretsi dabe Cimubisak arlo horretan daukan jarraera. Izan be, enpreseak berak onartu dau eskaintza dituan zerbitzuen %78,34 azpikontratu bidez egiten dituala.

Mozinoaren barri emoteko, ezker abertzaleko taldeak age-

rraldia egin eban, atzo. Perezek gogoratu eban, bere taldeak 2000. urteaz geroztik salatu izan dau enpresa horren jarduerak, ez bakarrik Enplegua sortzeko Planak agindutakoa betetzen ez dabelako, baita «azpikontratazioak eragin guztiz kaltegarriak ditualako Cimubisak eskaintze dituan zerbitzuetan», nabarmendu eban.

Jakina danez, Cimubisa Udalaren sare informatikoa ipini, sarea bera jagon eta horren bidez eskaintze diran zerbitzuak kudeatzeko sortu zan aspaldi. SAko zinegotziek atzo salatutakoa, orain dala gitxi jakin eragin eben Udalaren beharginen ordezkariek: Sarea askotan jauten da eta lokan izten ditu Uda-

laren ordenagailu guztiak. Horrek kalte egiten deutso ez bakarrik langileen beharrari, baita herritarrei eskaintzen jaken zerbitzuei be.

Horrezaz ganera, Cimubisak hainbat behargin kaleratu dituala nabarmendu eben zinegotziok. Ez hori bakarrik. Kritika guzti horreei erantzuteko, Cimubisako zuzendariak igorri eutsien gutun baten esaten diranak jakin eragin zituen: euren esanetan, 1982. urteaz geroztik jarduera bardina izan dabe, eta orain arte ez dabe jaso horren inguruko kritikarik alderdien aldetik. Urkaregi argi itxi eban hori «guzurra» dala, eta horretarako gura dabela Administrazio Kontseilua batzea.

GARRAIOA

Matiko eta Deustu arteko trenbidea kentzeko eskatuko dabe

Erredakzioa

EuskoTren konpainiak Matiko eta Deusto artean daukan trenbidea kentzeko eskatu dabe inguruko auzokoei, trenbidearen albo bietan dagozan etxeetan jasanezina diralako horrek eragiten dituan kalteak. Auzokoak Udaleko alderdi guztiekin batu dira mozinoa aurkezteko, baina azkenean euren aukerea emon beharrean, PP, PSE eta EBk euren aldetik aurkezatea erabagi dabe, SA taldea baztertuz.

Mozinoan trenbide zati hori kendu, eta Bilbobus sareko 71. autobusa Artasamina kaletik joatea eskatuko dabe, Deustora joan behar daben auzotarrak aukera hori emoteko. Dinoenez, trenak etxebizitzetan eragiten dituan dardarak, zaratak eta hezeguneak asko handitu dira azkenengo urte bietan, kalea zabaltzeko obrak egin ziranetik.

UDALA

ELAk jakin eragin dau arratoi gehiago agertu dirala Erkoreka kaleko egoitzan

Erredakzioa

ELA sindikatuak salatu dauenez, arratoi gehiago agertu dira egunotan, Udalaren Gizarte Ongizate Sailak Ernesto Erkoreka kalean daukan egoitzan. Dinoenez, horrek ezinezona eragin dau, beharginak urduri ipinten diralako, eta animalioak akabatzeko erabilten diran gai kimikoak atsa sortzen dabelako.

Egoera horrek eraginda, ELAk bulego horrekin zarratzeko eskatu deutso Iñaki Azkuna alkateari, beharginak duintasunezko baldintzatan lan egin ahal izateko. Euren ustez, hau izan leiteke une egokia Udalaren Erroldaren eta Gizarte Ongizate Sailaren zerbitzuak beste nonora eramateko. Gogoratu dabenez, oraingo eraikinean obrak egin beharko ditue laster.